



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea

IGORREKO SANTA LUCIA AUZO ESKOLA

Egilea: Iraia Inuntziaga Barrenetxea

Zuzendaria: Begoña Bilbao Bilbao

Leioan, 2014ko ekainaren 10ean

© 2014, Iraia Inuntziaga

Aurkibidea

Abstract.....	2
Sarrera.....	3
1. Esparru teoriko eta kontzeptuala	4
1.1. Auzo eskolen araudia.....	4
1.2. Moyano legea.....	8
1.3. 1920- 1923 urteak, aldaketa garaia	8
2.4. Diktadura garaia.....	9
1.5. II Errepublika	9
1.6. Frankismoa.....	9
2. Metodologia.....	11
3. Lanaren garapena.....	13
3.1. 1920- 1930	13
3.2. 1930- 1940	15
3.3. 1940- 50 (Ramon Ellakuriak emandako informazioa).....	17
3.4. 1950- 60 (Maria Segunda Inunciaga eta Ander Gorosperen eskutik).....	18
3.5. 1960- 1970 (Aintzane Inunciagak luzatutako informazioa)	21
3.6. 1970- 76 (Iosu Inunciagaren eskutik)	22
4. Emaitzak eta ondorioak	23
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	25

IGORREKO SANTA LUCIA AUZO ESKOLA

Abstract

Iraia Inuntziaga Barrenetxea

UPV/EHU

Ugariak izan ziren 1919. urtetik aurrera sortutako auzo eskolak. Horietako bat izan zen Igorreko Santa Lucia auzo eskola. Horren ibilbidea luzea izan zen, 1922tik 1976ra arte egon zen funtzionamenduan eta artxiboko datuek eta elkarrizketatuek emandako informazioak argi uzten dute aldaketa nabarmenak egon zirela hamarkadaz hamarkada: irakaskuntza aldatuz joan zen, maisu- maistra aldaketak egon ziren aldetik; asistentziari garrantzia handiagoa ematen zitzaion amaieran; ikasgaiak guztiak batera ikastetik banatuta ikastera pasatu ziren; momentuan gizartean indarrean zegoen politikak hezkuntzan ere eragina zuen... Hainbat faktore izan ziren aldaketa prozesuaren eragile, azkenean, 1976. urtean Aldundiak betirako itxi zuenera arte, herrian bertan zegoen eskolara jaisteko baliabideak agertu zirenean.

Auzo eskola, hezkuntza, irakaskuntza, aldaketa, gizartea

Fueron muchas las escuelas de barriada construidas a partir del año 1919. Santa Lucia de Igorre fue una de ellas. Su trayectoria fue larga, estuvo en funcionamiento desde 1922 hasta 1976 y los datos del Archivo y la información recibida por parte de los entrevistados dejan constancia de los cambios que hubo a lo largo de las décadas: la enseñanza fue cambiando, también el profesorado; la asistencia fue adquiriendo más importancia en las últimas décadas; las asignaturas pasaron de ser impartidas de forma conjunta a separada; la política que recobraba fuerza en la sociedad en cada momento también influía en la educación... fueron muchos los factores inductores del proceso de cambio, hasta que al final, la Diputación decidió cerrar la escuela para siempre debido a las posibilidades de traslado a la escuela del pueblo.

Escuela de barriada, educación, enseñanza, cambio, sociedad

Many neighbourhood schools were built since 1919. Santa Lucia in Igorre was one of them. His career was long, it was operating from 1922 to 1976 and the data file and the information received from the interviewers let evidences of the changes that acurred over the decades: education was changing because there were changes of the teaching staff; attendance was gaining more importance in recent decades; subjects went from being taught together to be taught separetly; the politics that regained power in the society in each moment also affected the education... There were many factors in the change process, until finally, the Deputation decided to close the school forever because there were possibilities to go to the village school.

Neighbourhood school, education, teaching, change, society

Sarrera

Arratia bailaran ugariak izan dira auzo eskolak. 1919. urtetik hasita, bertako auzoetan mugimendu ugari egon ziren auzo eskolak sortzeko, herriko eskoletara arteko distantzia zela eta. Horietako bat izan zen Igorreko Santa Lucia auzo eskola, herriko auzo eskola bakarra.

Auzo eskola bakarra izanda, sakonago aztertzeke aukera emango zidalakoan nengoen eta horrekin bat informazio eskerga biltzeko parada izango nuelakoan, bertan ikasitakoak baitira aita eta izeko- osabak eta amama ere bertan lan eginikoa da sukaldari gisa. Hortik, hortaz, Igorreko San Kristobal auzoan kokatzen zen auzo eskola aztertzearen nahia.

Lan honek ikerketan izango du funtsa, oinarritzko ikerketan, alegia. Horretan murgiltzeko, beharrezkoa da ingurura hurbiltzea. Zerbait sortzeko arrazoiren bat egoten da beti. Hori dela eta, ikerketaren beste aldean egondako erakunde eta pertsonen nahiak eta kezkek ezagutu behar dira. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da lehenik eta behin Bizkaiko auzo eskolen sorrera prozesua azaltzea, ondoren Santa Lucia-n zentratu ahal izateko. Horrela bada, garaiz- garai gauzak nola aldatzen joan ziren islatuko da harik eta 70eko hamarkadan itxi zenera arte.

Horretarako hainbat informazio iturri erabili izan dira. Alde batetik, artxiboan eta udaletxean aurkitutako dokumentuak eta idatziak, batez ere, eskolako lehen bi hamarkadak deskribatzeko baliagarriak izan direnak. Beste alde batetik, bertan ikasitako eta lan egindakoei egindako elkarrizketak.

Horrela bada, garai batetik bestera egon diren aldaketak ikusi ahal izango dira, eta aldaketa horiek ez direla besterik gabe sortuak izan, baizik eta gizartean gertatzen joan diren arrazoi ezberdinengatik: lehentasun ezberdinak, politika, hezkuntza legeen aldaketa, ... Harik eta eskola behin betiko ixtea erabaki zen arte, ikasle guztiak herriko eskolara mugitzearen ondorioz.

1. Esparru teoriko eta kontzeptuala

Santa Lucia auzo eskolako gora beherak azaltzen hasi orduko, garrantzitsua da haratago joatea. Bizkaian, 1919. urtetik aurrera hainbat auzo eskola sortu ziren, horrenbestez, horren zergatia eta garai hartako egoera jakitea ezinbestekoa da.

Gregorio Arrien-en (1987) *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia, Escuela y autonomía* liburua irakurriz gero, jakin dugu urte hori baino lehenago ere, mozio ezberdinen bidez, auzo eskolak sortzeko ahaleginak egin zirela. 1896. urtean, Galdiz-ek bat aurkeztu zuen eta urte batzuen buruan, 1911n hain zuzen, Isidoro de Leon-ek. Hala ere, arrazoi ezberdinak zirela medio, arestian aipaturiko horiek ez ziren martxan jarri. Indarra hartu zuen mozioa, ordea, Gallano mozioa izan zen, 1919ko azaroan aurkeztua.

Arrienek azaltzen duen legez, garai hartan, Bizkaian, kultura eta hezkuntza arloan ezegonkortasuna zen nagusi. Gainera, Oñatiko Kongresuan argi geratu zen, batez ere, Geografian eta Lengua-n alfabetatze eza zegoela eta ondorioz, hezkuntzan berrantolatze bat nahitaezkoa zela, zeina Pedro Zufíaren (1930) *Las Escuelas de Barriada*-n ere egiaztatzen den. Aitzinean esaniko ezegonkortasun hori konpontzeko 50 eskola sortzeko proposamena hitzartu zuten, eta baita hitzarturikoa bete ere, izan ere, Gallanoren mozioari esker geroago 100 izango ziren sorturiko eskolak, harik eta azkenik 100etik gora egon arte.

Bestalde, ezin da aipatu gabe utzi “Junta de Instrucción Pública” delakoa. Azken hori 1917. urte amaieran sortu zen Lehen Hezkuntza antolatzeko asmotan eta honakoa finkatu zuen: euskaraz egiten zen tokietan, hezkuntza, neurri handienez, euskaraz eman behar zen; erdaraz egiten zen tokietan, aldiz, euskaraz irakurtzen, idazten eta abesten irakatsi beharko zen baina gainerako guztia erdaraz. Junta hori ere auzo eskolen sorrera prozesuan ezinbestekoa izan zen.

1.1. Auzo eskolen araudia

Gallanok dena zehatz-mehatz finkatuta aurkeztu zuen. Guzti hau horrela izaki, jarri zituen baldintzetako batzuk aipatuko dira *Reglamento de escuelas de barriada* (1926) liburutik jasoak eta *Escuelas de barriada de Vizcaya- Moción Gallano, Estatuto, Reglamento, Plan y Cuadros de Enseñanza* (1921) n ere egiaztatzen direnak:

- Hainbat aspektu “Junta de Instrucción Pública”-ren ardurapean geratzen ziren: herri bakoitzean zenbat auzo eskola behar ziren, ereduak edo kategoria zehaztea, zenbat ikasle egongo ziren jakitea, ordutegia finkatzea, ...

- Ikuskapen Juntei dagokienez:

- Udalerri bakoitzean Ikuskapen Junta bat egon beharko litzateke alkateak edo bere delegatuak, parrokoak edo honen delegatuak, mediku titularrak eta hiru gurasok osatua.
- Alkateak batzarrak deitu eta horien buru izan beharko luke eta bere faltan, parrokoak bete beharko lituzke zeregin horiek.
- Gutxienez hilean behin bildu beharko lirateke.
- Junta honen betebeharrak honakoak izango lirateke: eskolaren funtzionamenduaren jarraipen bat egitea, “Junta de Instrucción Pública”-ri informatzea, lokala egoki mantentzen dela ziurtatzea, ...
- Medikuek batik-bat umeen egoeraz arduratu beharko luke: errebisioak, txertoak, ...

- Eskola lokalak

- Lokala uztearen ardura udalerraren esku geratuko zen, auzokideek edo udaletxeak utzi beharko zutelarik.
- “Junta de Instrucción Pública”-k ikuskapenak egiten zituen eta konponketaren bat egitea beharrezkoa zela ebatziz gero, udaletxeak eta auzokideek izanen lukete konponketa horiek egiteko betekizuna.
- Lokal horiek hezkuntza eta kultura helburuetarako bakarrik erabil zitezkeen.

- Irakaskuntza

- Maisu- maistrak sexu bietakoak izango lirateke, “Junta de Instrucción Pública”-k antolatutako oposaketa publikoen bidez hautatuak hain zuzen ere.

- Parte- hartzeko baldintza bakan batzuk honako hauek ziren: mutilen kasuan, horiek 20-40 urte bitartekoak izatea ezinbestean bete beharriko baldintza izango litzateke eta maisu titulua izan behar zuten; Aitzitik, neskek 18-40 urte bitartekoak izan behar ziren eta osasun ziurtagiri eta fisiologikoa izan behar zuten.
- Lehenetasuna bizkaitarrek izango lukete, ondoren gainerako probintzietakoek eta azkenik Espainiako beste toki batzuetakoek.
- Eskolek bi kategoria izango lituzkete: euskara lehenesten zuten zonaldeak (A) alde batetik eta gaztelania ohiko hizkuntzatzat jotzen zutenak (B) bestetik.
- A kategoriako eskoletan sartzeko euskara jakitea aski funtsezkoa zen eta euskalki bizkaitarra hobetsiko zen. Norbanako bakoitzak giblean aipaturiko euskalkian zuen maila jakiteko azterketa litzateke erabiliko litzatekeen tresna.
- Soldatak lehenengo 5 urteetan 3000 pzta- koak izango ziren, baina zenbat eta urte gehiago egin, orduan eta soldata altuagoa jasoko zen. (1. eranskina, 26. orr.)
- Kurtso amaiera guztietan azterketak egingo lirateke eta horien arabera eskolak honela sailkatuko ziren hurrenez hurren: bikainak, oso onak, onak, erdipurdikoak, tartekoak edo txarrak.
- “Txarrak” gisara izendatutako auzo eskolei urte bateko epea emango litzaieke egoera bideratzeko, hots, hobetzeko. Lortuko ez balute kargugabetze espedientea zabalduko litzaieke.

- Eskola erregimena

- Auzo eskolak ikasleak aintzat harturik era honetan sailkatzen dira: mistoak, unitarioak eta bereziak. Eraikin eta estrukturan arabera: bakunak, bikoitzak eta bereziak. Bikoitzak esatean azpimarratu beharrekoa da honako hauek mistoak edo unitarioak izan zitezkeela.
- Mistoetan maistra arituko litzateke, bikoitz unitarioetan, ostera, maisua mutilekin eta maistra neskatoekin.
- Ikasleak 5-14 adin bitartekoak izan beharko lirateke eta gela bakoitzean ez lirateke 50 baino gehiago egongo.
- 6 ordu emango lituzkete ikasten hurren: 08:30etik 11:30era eta ondotik 13:30etik 16:30era urria, azaroa, abendua, urtarrila, otsaila eta martxoan;

8:00etatik 11:30era eta 14:30etik 17:30era apirila, maiatza, ekaina, uztaila eta irailean zehar.

- Egunean bi jolastordu izango lituzkete, biak ordu erdiko iraupenarekin.
- A kategoriako eskoletan euskararen xedea ikaskuntzaren bitartekaritza lana burutzearena litzateke.
- Ikasgaiak honakoak ziren: heziketa erlijioso eta morala, irakurmena eta idazmena, aritmetika eta geometria, herritartasuna eta higieena, geografia, historia, gaztelaniaren gramatika, zientzia fisiko- naturalak, marrazketa, heziketa hiritarra, eskola kantuak.
- Erdiko mailatik aurrera, neskei josten, plantxatzen, garbitzen, higieena kontuak, ekonomia kontuak, ... irakatsiko zitzaizkien.
- Auzo eskola unitario eta mistoetan hiru maila bereiziko dira: oinarrizkoa, erdikoa eta goi mailakoa. Maisu- maistrek ikasleak maila horietan sailkatu beharko lituzkete.
- Maila bakoitzean ikasgai ezberdinak emango ziren. (Guztiak 2. eranskinan, 27. orr.)
- Kurtsoan zehar haurrek oporraldiak izango zituzten (Oporren banaketa ikusteko jo 3. eranskinera, 31. orr.)
- Eskolan lantzen ez diren materialak (egunkariak, liburuxkak, ...) eskolan sartzea guztiz debekatuta egongo litzateke.
- Maisu- maistrek debekatuta izango lukete ikasle edo familiarengandik oparirik jasotzea.
- Argi elektrikoa zuten eskoletan irakasleren batek zinematografoa erabiltzeko apeta izanez gero, inspektoreari jakinarazi beharko lioke eta erabileraren arrazoiak zehaztu.

Arrienek (1987: 139) azaltzen duen legez, 1920ko urtarrilean, Bizkaiko herrietara baldintza batzuk bidali ziren, auzo eskolak lortu nahi zituztenek kontuan izan zitzaizkien: “auzoek 10 biztanle baino gehiago izan beharko zituzten, eskola hurbilenera arteko distantzia kilometro bat baino gehiagokoa izan beharko zen eta auzo eskola egongo zen lokal apropos bat bilatzearen ardura udaletxearena edo auzoarena berarena litzateke”. Horretaz gain, galdeketa bat ere luzatu zitzaizkien ondorengo datuak eskatuz beste batzuen artean: zenbat auzok beharko luketen eskola, auzokide kopurua, bertako hizkuntza nagusia, umeen parte-hartzea nekazaritza lanetan, ...

Urte horretako apirilean, 50 auzo eskolatan lan egiteko deialdia zabaldu zen. Agidanean, baldintzetariko bat euskaraz jakitea zen zonalde euskaldunetan kokatzen ziren eskolatan lan egiteko. Maisu-maistra ugari izan ziren izena eman zutenak.

Auzo eskolatan irakasten zena ulertzeko eta argitzeko legera jo beharra dago, izan ere, hezkuntza legeak dira ikasleak ikasi beharrekoa bideratzen dutenak.

1.2. Moyano legea

Luis Batanaz-en (1998) *Organización escolar: bases científicas para el desarrollo de las instituciones educativas* irakurriz gero, jakingo da, “Ley de Instrucción Pública”, “Moyano Legea” bezala ezagunagoa egiten zaiguna, 1857. Urtean jarri zela indarrean. Hortaz, auzo eskolen hasiera horretan hori da martxan egon zena. Hezkuntza mailan ezarri zen lehen legea izan zen eta lege hori Espainian zegoen alfabetatze ezaren tasa konpontzeko asmoz sortu zen.

Lege honek lehen hezkuntza gradu bitan banatzen zuen, “elemental” eta “superior” alegia. Horrez gain, doakotasun erlatiboaren alde ere egin zuen. Hau da, hezkuntza doakoa izango zen ordaindu ezin zuten gurasoak zituzten haurrentzat.

Sasoi horretan, emakumeek paper nahiko pasiboa zuten gizartean. Hortaz, emakumeentzako baliabide eskusiboak sortu ziren eta materia espezifikokoak sortu hezkuntza barruan.

1.3. 1920- 1923 urteak, aldaketa garaia

Garai honetan, politika esparruan, Liga Monarkika delakoa agertu zen eta alderdi horretako Presidentea Luis de Echevarría izan zen. Momentu horretan, nazionalismo espainola euskal nazionalismoaren aurka jarri zen. Ligak ez zuen beharrezkotzat jo elebitasuna eta horren ondorioz, hezkuntzak norabide espainolista hartu zuen. Orobat, aurretiaz euskararen alde egindako lana ez zuen beharrezko ikusten alderdiak.

Aitzinerago esan bezala, “zonalde euskaldunetan eskolak euskaraz ematea ebatzita zegoen, bahintzat zonalde euskaldunetan, baina garai horretan hori zalantzan jarri zen, [...] horrez gain, egoerak buelta eman eta euskarazko testu asko gauzaeztandu egin zituzten” Arrien (1987: 142). Ondorioz, euskaraz irakasten hasi baino ez eta euskarazko hezkuntza desagertu egin zen.

1.4. Diktadura garaia

Diktadura garaian, 54 eskola nazional eta 37 municipal zeuden. Auzo eskolei dagokienez, askok aldaketa nabarmena jasan zuten eta beste asko sortu egin ziren. Azken horiek, 1930era orduko 100 ziren, matrikulatutako umeak 5800 baino gehiago eta maisu maistrak 148 inguru. Arrien (1987: 145).

1.5. II Errepublika

II. Errepublikan auzo eskolak 100 baino gehiago ziren Arrienek esaten duen legez. Hala ere, 1930 baino lehenago sortutako auzo eskola batzuk desagertu egin ziren hasieran finkatutako funtzioak ez betetzearen ondorioz.

Garai horretarako jada, ikasleak 6321 baino gehiago ziren eta maisu maistrak 162 tik gora.

Errepublikaren garai honetan, laizismoa ere agertu zen. Horren ondorioz, gurutzeak eta erlijioarekin erlazionatutako kontuak kentzeko dekretua plazaratu zen. Horretara behartuta zeuden arren, protesta ugari egon ziren, azken finean, auzo eskolak sortzerakoan, orientabideetako bat erlijiosoak izan zelako eta auzo eskolak aurkitzen ziren lokal ugari ere erlijiosoak zirelako.

1.6. Frankismoa

Luis Batanaz-en (1998) *Organización escolar: bases científicas para el desarrollo de las instituciones educativas* liburuan, honako legeak deskribatzen dira:

Ley de Instrucción Primaria

Frankismo garaian, 1939. urtean hain zuzen ere, Ley de Instrucción Primaria delakoa agertu zen. Frankoren erregimenaren ideologia barne-hartzen zuen, hezkuntza familiaren, estatuaren eta elizaren eskubidetzat joz. Garai horretako eskoletan beraz, Frankoren irudiak berebiziko garrantzia hartu zuen.

Estatu guztiko hizkuntza baterakuntza lortu nahi zen. Horrez gain, Lehen Hezkuntza (6tik 12 urtera) derrigorrezkoa eta dohainekoa izan behar zela ebatzi zen.

Ley general de educación de 1970

Espanian aldaketa bat egotea beharrezkoa zen gizarte, hezkuntza eta politikako arloetan. Hezkuntza sistema nazionala osotasunean hartzen zuen lege bat sortzea beharrezkoa zen.

Lege hau sortzeko irizpideak batasuna, hezkuntza maila ezberdinak barne hartuz, beraien arteko erlazioak eta malgutasuna izan ziren.

Hezkuntza sistemaren egitura honelakoa izan zen:

Amatasun hezkuntza bi urtetik lau urtera artekoa izaten zen. Borondatezkoa zen eta zentro pribatu eta haurtzaindegietan ematen zen.

Eskolaurreko hezkuntza: 4 urtetik 6 urtera arte. Borondatezkoa zen eta zentro publiko zein pribatuetan ematen zen, Haur Hezkuntzako espezialistak ziren irakasleen eskutik. Curriculuma hausnartzeko alderdietara eta materia instrumentaletarako prestaketara mugatzen zen, aurre irakurketa, aurre idazketa eta aurre kalkulura beste batzuen artean.

Oinarrizko heziketa orokorra: sei urtetik hamalau urtera arteko nahitaezko eta dohaineko heziketa. Zortzi maila zeuden guztira eta bi etapatan (alde batetik lehenengo

etapa osatzen zuten bost kurtso zeuden eta beste alde batetik, bigarren etapa osatzen zuten azkeneko hiru kurtsoak) eta hiru ziklotan banatzen ziren banatzen ziren:

- Hasierako zikloa: sei eta zortzi urte bitartekoak, lehenengo eta bigarren kurtsoetako ikasleak, alegia.
- Erdiko zikloa: zortzi eta 11 urte bitartekoak, hirugarren, laugarren eta bosgarren kurtsoetako ikasleak hurrenez hurren.
- Goi mailako zikloa: 12 eta 14 urte bitartekoak, hau da, seigarren, zazpigarren eta zortzigarren kurtsoetako ikasleak.

Nahitaezko eskolatzea bukatzerakoan, ikasleak bi titulu hauetako bat lor zezakeen:

- Eskola graduatua: oinarrizko heziketa orokorreko 8 ikasturteetako helburuak arrakastarekin lortzen zirenean. Behin hori lortuta, ikasleak Batxilergoko edo lanbide-heziketako ikasketekin jarrai zezakeen.
- Eskolaldi-ziurtagiria: zortzi eskolaldi-urteak egin izana egiaztatzen zuen baina lanbide-heziketan sartzeko edo heziketa-sistema uzteko aukera soilik ematen zuen.

Laburbilduz, lege honen helburuak honako hauek izango lirateke:

- Hezkuntza espainiar populazio guztiarentzako hedatzea.
- Heziketa orokorra prestaketa profesional batekin osatzea, banakoek lanean hasteko erraztasuna izan dezaten.
- Heziketarako aukera berdintasunak guztiei eskaintzea.
- Geletan sexu bidezko banaketarik ez egitea.
- Ikasgai bakoitza bere aldetik ematea.

2. Metodologia

Bizkaiko auzo eskolen nondik norakoak argi izanik, hurrengo pausua Santa Lucia auzo eskolaren inguruan buru belarri aritzea izango litzateke.

Bibliografian aurkitutakoa osotzeko beharra ikusi dugu. Horretarako, artxibora jo izan da. Sorreraren urtea, irakasleek idazten zituzten oharak, asistentzia dokumentuak, materialen inbentarioak, ... lortu ahal izan dira eta oso lagungarriak suerta dira eskolako lehenengo bi hamarkadak deskribatu ahal izateko.

Hala ere, datu ofizialak garrantzitsuak badira ere, berebiziko garrantzia ematen izan zaie egoera hori bizi izandakoen testigantzei. Hori dela eta, batez ere, ikasle izandakoen elkarrizketetan oinarritu izan da itxi zenera arteko hamarkadak aztertzeko, esperientziak, ikasgaiak, irakasleen ezaugarriak, zigorrak, jolasak, ... luzatu didaten guztia bilduz.

Urte andana pasatu da jada auzo eskola hau martxan ez dagoenetik, eta are gehiago martxan jarri zen unetik, hortaz, zaila da hasiera horretan ikasle izandakoak bizirik egotea. Hala ere, zaharrenetatik hasi eta eskola itxi zenean bertan ikasten zeuden ikasleei ere elkarrizketa egitea izan da asmoa. Horrela bada, honakoak izan dira elkarrizketatuak:

- Antonio Atutxa: 89 urte ditu gaur egun, eta 1930-1940 bitarteko hamarkadan aritu zen eskolan. Elkarrizketatutako zaharrena da, beraz.
- Ramon Ellakuria: 1938an jaioa. 76 urte ditu, eta 1940- 1950 bitarteko hamarkadako ordezkari hartutako pertsona da.
- Ander Gorospe: 65 urte betetzen ditu aurten eta 50. Hamarkadako informaziorik gehiena berari esker lortu izan da. Horrez gain, beste hamarkada batzuetako informazioa ere eman izan du, eskolaren inguruko jakintza handia baitu.
- Maria Segunda Inunciaga: aurreko elkarrizketatuarekin batera, 50. Hamarkadako ordezkari bezala erabili izan dut elkarrizketatu hau.
- Aintzane Inunciaga: eskolari buruzko 60. Hamarkadako informazioa eman izan dit.
- Iosu Inunciaga: eskolan ibilitako azkenetariko ikaslea izanik, honen amaierako etapa nolakoa izan den azaldu izan dit eta horrekin batera itxieraren arrazoiak.
- Maria Dolores Amuriza: 60.hamarkadatik itxierara arte eskolako sukaldaria izan zen. Horrez gain, sukaldari izan aurretik, eskolatik urrunen bizi ziren ume asko bere etxera joaten ziren bazkaltzera, eta berak ere informazio ugari eman izan dit.

Elkarrizketa informazioa lortzeko iturri oso garrantzitsua da eta hortaz, beharrezkoa da aurretiazko prestakuntza fase bat egotea, galdera egokiak hautatzeko elkarrizketa horri ahalik eta etekin handiena lortzeko. Kasu honetan, egingo den elkarrizketa mota estandarduna izango da, erdi- egituratu alegia. Hau da, gidoi bat egongo da, baina jasotako erantzunen arabera, galderak moldatuz joango dira momentuan momentuko egoerara egokituz. Gidoi bat izan bai, baina nahiko zabala izango da, beraz.

(Ikasle izandakoei egindako galderak, 4. eranskinean, 32. orr.)

Horiez gain, arestian aipatutako nire amamari elkarrizketa informal bat egin nion, informazio anitzagoa lortzeko parada emango zidalakoan.

3. Lanaren garapena

3.1. 1920- 1930

1920ko maiatzaren 15ean, Igorreko San Kristobal auzoko ordezkaria zen Hilario de Soloeta abadeak gutun bat bidali zuen “Junta de Instrucción Pública”ri zuzenduta. Bertan, 70 auzoko ingururen eta Dima herriko beste batzuen izenean hitz egiten zuen, auzo eskola bat sortzea beharrezko ikusten zutela jakinaraziz, eskola hurbilena 2,5 km eta 5 km artean zutelako. (Gutun guztia 5. eranskinean, 33. orr.). Eskola bikoitza izatea eskatzen zuten eta auzokideak prest zeudela eraikina eraikitzeko.

Urte bete inguru beranduago, 1921eko otsailaren 25ean, alegia, Presidentearen gutun bat jaso zuten, hilabete horretako 27an bertan Juan Gallanok Igorreko udaletxera urreratuko zela esanez, auzo eskola sortzearen gaia jorratzeko eta hurrengo hilabetean baimena jaso zuten. (Baimena 6. eranskinean, 35. orr.)

62 etxek hartu zuten parte guztira. Ander Gorospe ikasle ohiak bere amari entzundakoaren arabera, etxe bakoitzak 60 egun “buzterri” jarri zituen (etxe bakoitzak zituen baliabideak jarrita, gurdia edota idiak adibidez, materiala eramatea) eta 30 egun

“beso” (eskola eskuz eraikitzen joatea). Eraikinaren lurrak berez auzokide guztienak ziren, jabea zenak auzokideei utzi zizkielako. Baina berauek norbaiten izenean jarri behar izan ziren, eskola egin ahal izateko. Garai hartan, Ortuetatarrak auzoko aberatsenak eta boteredunenak izanik, Hilario Ortuetaren izenean jarri zen eskola.

1922ko maiatzaren 17an, auzokideek eraikina eginda zegoela jakinarazi zioten “Comision de Instrucción Publica”-ri eta Luis Eleizalde “A” kategoria bezala izendatu zuen eskola eta bikoitz unitario modalitatea hartu zuen (*Esparru teorikoan, auzo eskolen araudiaren barruan, “eskola erregimena” atalean ikus daitezke egon zitezkeen modalitate ezberdinak*)



1. irudia: Santa Lucia-ren kokapena



2. irudia: Santa Lucia eraikita

1922ko ekainean, Orduan Igorreko alkate zen Benigno Echevarriak Lehen Hezkuntzako maisua D. José Sorazu y Asnal izango zela jakinarazi zion “Comision Provincial de Vizcaya”-ri eta nesken maistra Eulalia de Azcuenaga. Izan ere, esparru teorikoan, auzo eskolen araudiaren barruan, “eskola erregimena” atalean ikus daitezkeen moduan, unitarioa izatean, mutilei maisuak emango zizkieten eskolak eta neskei maistra batek.

1923an egindako inbentario baten eskutik jakin dezakegu ikasleek zer nolako materiala izaten zuten gelan: mahai bi pertsonalak gurutze eta tinteroekin, Españako mapa fisikoa, Europako mapa fisiko eta politikoa, munduko bola, gorputz geometrikoak; konpasa, zirkuluerdia, eskuaira, erregelak; doktrina ugari, arbela, ... beste gauza batzuen artean (Material guztia 7. eranskinean, 36. orr.).

1923ko irailean, maisu aldaketa bat egon zen, Delfin Rondak hartu zuelarik aurrekoaren tokia.

1924ko martxoan, eraikina udaletxearen eskuetan utzi zen, baina hala ere, legezko jabe moduan Ortuetak jarraitzen zuen.

Asistentzia datuek askotan behera egiten zuten arrazoi desberdinengatik: gaixotasunak, parrokiako misioak, nekazaritza lanak, ... 1925ko azaroan, adibidez, eskola denboraldi batez itxi egin behar izan zuten “Tosferina” gaixotasuna asko hedatu omen zelako.

Kurtso horren bukaeran, mutilen klaseak jaso zuen kalifikazioa “txarra” izan zen, nesken kasuan gertatu zen bezala. Esparru teorikoan, auzo eskolen araudian, “irakaskuntza” atalean gelek izan zitzaketen kalifikazio ezberdinak ageri dira, eta txarra izatekotan, urte beteko epea zutela egoerari buelta emateko, espedientea zabaltzea nahi ez bazuten.

1926. urtean maistra aldaketa eman zen, Concepción de la Torre lanean hasi zelarik.

Asistentzia datuetan maisu/maistrek idazten zituzten notatxoetatik baieztatzen den beste aspektu bat ikasle askok (neskak) eskola utzi egiten zutela da, zerbitzari joateko eta gurasoek ere ez ziotela eskolari lehentasuna ematen (8. eranskina 38. orr.). Horrela bada, 1927. urteko maiatzean, Ikaskuntzako Inspektoreak kurtso horretan zehar kopuruak gora egiten ez bazuen eta hurrengo kurtso hasieran ume gehiago matrikulatzen ez baziren, eskola hori “sencilla mixta” bihurtuko zela jakinarazi zuen maistra bakarrarekin. Hala ere, 1927ko irailean matrikulatutako haurren zerrendei erreparatuta, eskolara mutilezko haur gehiago sartu zirela ikusten da eta hortik abiatuta ondoriozta daiteke ez zutela “sencilla mixta” bihurtu. (9. eranskina, 39. orr.)

3.2. 1930- 1940

“Comision de Instrucción Publicaren” izenean lehendakari ordeak egindako idatzi baten ondorioz jakin daiteke 1930. urtean hainbat konponketa egin behar izan zirela eskolan: itoginak konpondu, komunak independizatu, “zuritze” orokorra, ... horiek auzokideek

egin behar izaten zituzten (*Esparru teorikoan, auzo eskolen araudiaren barruan, “eskola lokalak” atalean azaltzen denari jarraiki*).

1933ko urtarrilean, inspektoreak eskola bisitatu zuen. Horri esker jakin daiteke Delfin Ronda maisuaren gelan, hau da mutilenean, gradu ezberdinak bereizten zirela, “Preparatorio, elemental y medio” (*Moyano legean azaltzen den bezala eta Esparru teorikoan, auzo eskolen araudiaren barruan, “eskola erregimena” atalean azaltzen denari jarraiki*). Bere gelan, garapen handia ikusi omen zuen eta asistentzia bikaina zela ziurtatu. Irakasle honen zigorrak nahiko gogorrak ziren, garai horretan bere ikasle zen Antonio Atutxak baieztatzen zuen legez. Eskuak luze- luze eginda liburuak eustea zen horietako bat eta pala bat ere eramaten omen zuen, sarritan erabiltzen zuena ikasleen eskua berotzeko inolako errukirik gabe. Nesken gelan, ostera, bertako gidaria Concepcion de la Torre zelarik, “Parvulos, Preparatorio y elemental” bereizten ziren eta kasu honetan asistentzia arazo handiagoak ikusten ziren, arestian aipatutako gaixotasunagatik.

Urte horretako otsailean, eskola hilabete batez ixteko agindua jaso zuten, toserina epidemiaren ondorioz.

Urrian, ikasturte berria hasita jada, beste inspektore baten bisita izan zuten eskolan, Concepcion de la Torreren gelan hain zuzen ere. Antza denez, maistra horren gelan lau gradutan banatzen ziren haurrak: “Parvulos, Preparatorio, Elemental eta Medio”. Baina gelako dinamika ikusita, ikuskatzaileak gradu horiek bitara soilik mugatzea ebatzi zuen, Preparatorio eta Elemental (Moyano legeak esaten zituen biak)hain zuzen ere.

Garai honetan, lur kontuekin eta propietate asuntuekin gatazka ugari egon ziren. Izan ere, eskolaren jabetzat jarrita zegoen Ortuetak (Hilario Ortuetairen semea, Anacleto) giltzarrapoak jarri zituen eskolan. Hala ere, 1934ko azaroaren 21erako giltzarrapoak eskolako ateetatik kenduta zeuden eta eskolak eman ahal izan zituzten. (10. eranskina, 40. orr.)

1935eko urtarrilaren 10ean, Anacleto Ortuetak “Gobernu Zibil”-era idatzi bat bidali zuen (11. eranskina, 41. orr.). Ez zuen nahi eskolak funtzionamenduan jarraitzea. Bera eskola aurkitzen zen eraikinaren jabea izanik, horrekiko eskubide batzuk zituela uste zuen eta horiek defendatu behar zituela. Hala ere, “Comision Gestora”-k gertatutako guztia baloratu zuen eta eskola horretako funtzionamenduak aurrera jarraitu behar zuela

ebatzi zuen. Izan ere, bera jabea izanda ere, baldintza batzuk onartu zituen eta horiek bete beharrean zegoela uste zuen “Comision Gestorak”. Hortaz, “Junta de Instruccion Publica”k eskolako irakasleei jakinarazi zien, eskola normaltasun osoz zabalduko zela berriz eta oztoporen batekin aurkitzekotan miñoi bikote baten eta herriko alkatearen laguntza izango zutela.

Otsailaren 18an eskolako ateak berriz zabaldu ziren eta miñoien eta herriko alkatea bertan agertu ziren arren, ez zen inolako arazorik agertu. (12. eranskina, 42. orr.)

Urriaren 27an, eskola itxi egin behar izan zuten, euriteen ondoriozko lur- jausiengatik. Hala ere, hilabete horretako 31n bertan, berriro ere zabaldu zen, denborak hobera egin omen zuen eta.

3.3. 1940- 50 (Ramon Ellakuriak emandako informazioa)


6 urterekin hasten zen garai horretan eskolan eta 14 urterekin bukatu. Neskak eta mutilak banatuta ikasten zuten eta maistra bana izaten zuten, mutilena Maria Mujica eta neskena Isabel Echenagusia, Bilbokoa eta Galdakaokoa hurrenez hurren. Tranbian joaten omen ziren eta Igorretik San Kristobal auzora oinez igo.

Garai horretan ez zitzaion euskarari batere lekurik uzten, guztia gaztelaniaz ikasten zuten eta maistra ez zen momentu baten ere euskaraz zuzentzen umeengana.

Zigorrak gogorrak izaten ziren, Ramon Ellakuriaren hitzetan: “mutilak nahiko aldrebesak izaten ginen eta jo egiten gintuzten pixka bat zuzentzeko”. Horrez gain, kopiak bidaltzea oso ohikoa zen, eta noizean behin erregelarekin ere atzamar puntetan jotzen zituzten. Hala ere, oso maistra onak omen ziren.

13-14 pertsona egoten ziren gela bakoitzean, eta adin desberdinetakoak nahasturik egoten ziren. Maistra guztien aurrean kokatzen zen, beraiei begira. Nagusienak atzeko aldean egoten ziren eta gazteenak aurreko lerroetan. Binaka esertzen ziren, mahaiak binakakoak baitziren.

Alvarez Entziklopedia izaten zuten eta bertan ikasgai gehienak biltzen ziren: historia, geografia, matematika, irakurketa, idazmena, artimetika, geometria, herritartasna, gaztelania gramatika... (*esparru teorikoko auzo eskolen araudiaren barruan, "eskola erregimena" atalean esaten den bezala*). Materiala eskolak luzatzen zien, beraiek ez zuten ezer erosi behar izaten.



3. irudia: Álvarez Entziklopedia

Gelan zehar mapak, arbela, gurutzea, ... izaten zituzten.

Eskolara sartzetakoan eta irteterakoan “Cara al Sol” abestu behar izaten zuten eskolako aterpean. (Ley de Instrucción Primaria legearen eragina ikus dezakegu hemen, honek Frankoren irudiari garrantzia handia ematen baitzion)

Asistentziari garrantzia ematen zitzaion arren, etxeko lanei inportantzia handiagoa ematen zitzaion etxeetan, hortaz, lanen bat egiteko bazegoen, ez ziren eskolara joaten. Adibidez, garia eriteko garaian, lan handia egoten zen eta askok eskolara joan barik geratu behar izaten zuten, etxean laguntzeko.

Goiz eta arratsaldez ikasten zutenenez, hurbil bizi zirenak etxera bueltatzen ziren bazkalorduan. Hala ere, urruneko baserrietan bizi zirenei Maria Dolores Amurizak jartzen zien bazkaria (geroago eskolako sukaldari izan zena), etxea eskola ondoan baitzuen. Maria Doloresen hitzetan, umeez urdaia eta babak eramaten zituzten eta berak prestatzen zien jatekoa.

3.4. 1950- 60 (Maria Segunda Inunciaga eta Ander Gorosperen eskutik)

Maria Segunda Inunciaga eta Ander Gorospek, garai horretan ikasle izanak, esaten duten legez, aurreko garaian bezala banatuta ikasten zuten adin ezberdinetako neskek eta 20 pertsonatik gora egoten ziren gela bakoitzean.



4. irudia: mutilen eta nesken geletako kideak

Sasoi honetan, aurreko hamarkadan egon ziren maistra berdinak egon ziren, Isabel Echenagusia nesken kasuan, eta Maria Mujica mutilenean.

Txikiak aurrean eta nagusiak atzean kokatu arren, sailkapen horren barruan ere beste kokapen bat ematen zen. Izan ere, irakasleak galderak egin eta ondoen erantzuten zuenak postu pribilegiatua lortzen zuen izkina batean eta garrantzitsua zen postu hori mantentzea.


Irakasteko hizkuntza gaztelania izan arren, nesken maistra, adibidez, euskalduna zen eta ikasleren batek zerbait erantzuteko zailtasunak izaten bazituen, euskaraz laguntzen zion. Guztiz debekatuta zegoen euskaraz aritzea eskolatik kanpo ere. Horren adibide dugu Ander Gorosperi jarri zioten zigorra jolastorduan “boteik hona pelotea” esateagatik, besoak zabalik jarrarazi eta gainean liburuak jartzea hain zuzen ere.

Maistraren atzean Frankoren argazki bat izan zuten eta Ama Birjinaren argazki bat gurutzera ere bai. Horrez gain, mapak ere izaten zituzten, Espainiakoa eta Europakoa. Arbel bat ere bazuten, eta berataraz irteten ziren ariketak egitera. Egurrezko berogailu bat izaten zuten gela berotzeko eta sarritan irakasleek bertan jartzen zuten janaria berotzen.

Lehenengo mailetakoez “kartillak” deitzen zirenak izaten zituzten, letrak, ... ikasteko.

Nagusiagoek sasoi honetan ere “Enciclopedia Alvarez” erabiltzen zuten, hiru gradutan banatzen zena eta ikasgai guztiak biltzen zituen. Horretatik aparte falangea ere ikasten omen zuten buruz. Neskei josten eta janaria prestatzen ere irakasten zitzairen. (*Moyano legeak esaten zuen legez eta esparru teorikoan, auzo eskolen araudiaren barruko “eskola erregimena” atalean arautzen zen bezala*).

Erlijiorako beste liburu bat izaten omen zuten, “historia sagrada”, alegia, izan ere, erlijioari berebiziko garrantzia ematen zitzaion. 15 egunetik behin, auzoko (San Kristobal) elizara joaten ziren doktrina ikastera abadearekin batera (gure aita, kredo, mandamenduak, ...). Hori euskaraz egiten zuten.



5. irudia: doktrinako liburua eta doktrina ematen

Gai honekin jarraituz, gelara sartzerakoan “gure aita” egiten zuten otoi. Gainera, ostiral arratsaldeetan, neska eta mutilak nesken gelan batu eta arrosarioa erreztatzen zuten. Neska bat aurrean jartzen zen arrosarioa errezzatzeko beharrezkoak ziren gauzekin (misterioak, ...) eta besteek jarraitu egiten zuten. Horretatik aparte, maiatza loreen eta Ama Birjinaren hilabetea izaten zenez, aldare moduko bat prestatzen zuten Ama Birjina eta baserrietako loreak jarrita eta hilabete horretan bertan egiten zuten otoi.

Garai honetan ere, “Cara al Sol” abesten zuten eskolan sartu orduko lerro bitan jarrita.

Urtean behin gutxi gora behera, ikuskaria joaten ohi zen eta joan orduko jakitun egoten zirenez, dena atonduta izaten saiatzzen ziren (koadernoak, liburuak, gaia prestatuta, ... izan ere, galderak egiten zizkieten, batez ere nagusiei, eta beraiek ondo erantzuten ahalegindu behar zuten.

Asistentziaren kontuak aurreko garaian bezala jarraitzen zuen, udaberrian, adibidez, baserrietan “itaurren” egin behar izaten zenean, batzuk ez zuten eskolara joateko aukerarik izaten, nekazaritza lanak garrantzitsuak baitziren baserrian.

Ordutegiari dagokionean, 10etan sartu eta eguerdiko ordu batean irteten ziren. Arratsaldean 14.30etik 16.30era ikasten zuten. Baina ostegun arratsaldeetan jai izaten omen zuten. Goizean atsedenaldea ere izaten zuten eta jolastordura irtetean, neskak eta mutilak batu eta euskaraz hitz egin eta jolasteari ekiten zioten.

Bazkalorduan ere berdina egiten jarraitzen zuten, hurbilekoak etxera joaten ziren eta gainontzekoak Maria Doloresen etxean bazkaltzen zuten.

Zerbait txarto eginez gero, zigorrak ez ziren makalak izaten. Maria Segundaren hitzetan: “gure irakaslea nahiko tolerantea zen arren, mutilena, Maria, ez zen horrenbeste eta mutilek beti izaten zuten aurpegian markaren bat, maistrak txaloren bat emanda”. Horrez gain, zigor gehiago ere jartzen zizkieten, horien artean kopiak egitea, erregelarekin atzamar puntetan jotzea...

3.5. 1960- 1970 (Aintzane Inunciagak luzatutako informazioa)

Garai honetan ere aurreko garaietako gauza asko mantentzen ziren: adin tarte berdinetan ikasten zen, gaztelaniaz eta neskak eta mutilak banatuta jarraitzen zuten, adin desberdinetakoak biltzen zirelarik geletan; sarreretan “Cara al Sol” abesten jarraitzen zen; materiala eta ikasgaiak ere berdinak izaten jarraitzen zuten, neskatok josten eta janaria prestatzen ere ikasten zutelarik.



6. irudia: nesken taldea

Etapan honetan aldaketa batzuk eman ziren. Maistra aldaketa ugari egon ziren nesken kasuan. Lehenengo Isabel Echenagusia, gero Mari Carmen Gutierrez eta azkenik Gloria Escribano izan ziren. Mutilen maistra Nieves Agirre izan zen. Hasieran mahaiak bi pertsonalak baziren ere, erreforma baten ondorioz, banakako mahaiak jarri zizkieten ikasleei. Horrez gain, etapa honen hasieran tinteroak eta lumak erabiltzen ziren arren, gero lapitzak eta boligrafoak izatera pasatu ziren.

Garai honetan jada ez zen asistentzia falta askorik egoten etxeko lanak egitearren.

Eskolan sukaldaria izaten ere hasi ziren urte hauetan zehar. Hasieran, Isabel izan zen, baina honek utzi eta Maria Dolores Amuriza hasi zen. Eskolan bertan zegoen jantokia,

sukalde handi bat omen zuten eta bertan jaten omen zuten guztiek. Mahaia neskato gazteek jarri eta batzen zuten eta berak guztientzako jana prestatzen zuen, hogeitau baina gehiago biltzen zirelarik, irakasleak barne. Janaria irakasleek eta ikasleek eramaten zuten. Astelehenetan porrusalda eta okela pikatua egoten zen, astearteetan babarrunak eta kroketak, asteazkenetan makarroiak eta ostiraletan berriro babarrunak. Ostegunetan ez zegoen jantoki zerbitzurik, arratsaldeetan jai izaten zutelako. Lan hori egitearren 500 pezeta ematen zizkion Aldundiak.

3.6. 1970- 76 (Iosu Inunciagaren eskutik)

Garai honetan aldaketa garrantzitsu bat eman zen, neskak eta mutilak batera ikasten hasi ziren, guztien maistra Gloria Escribano bihurtu zelarik (LGE legeak arautu zuen legez). Horrez gain, ikasgai guztiak “Enciclopedia”-n bilduta izatetik, bakoitza bere aldetik ikastera pasatu ziren (LGE). Aurreko etapan banaka esertzen hasi ziren arren, oraingo honetan berriro ere binaka jartzen ziren.



7. irudia: eskolako azkenengo ikasleak

Gainontzekoak berdin antzean jarraitzen zuen. Izan ere, erlijioak eta Francoren irudiak garrantzia handia izaten jarraitzen zuen.

Hala ere, heldu zen momentu bat non gero eta ikasle gutxiago zegoen eskolan. Baliabideak hobeto egin ziren, San Kristobal auzotik Igorreko herrira arte zihoan garraioa zegoen, eta beraz, haur asko Olabarri auzoan zeuden eskoletara joaten hasi ziren, udaletxetik ateratako dokumentu batean islatzen den legez: “Eskolak 70eko hamarkadara arte jarraitu zuen funtzionamenduan, harik eta Olabarri auzoan beste eskola batzuk egin eta ikasleak hara joan ziren arte”.

4. Emaitzak eta ondorioak

Lanaren garapenean ikus daitekeen moduan, hamarkadaz hamarkada gauzak dezente aldatu izan dira Santa Lucia auzo eskolan, eta alde hori batez ere hasierako hamarkadak azkenengoeekin konparatuz igar daiteke, baita gaur egungo egoerarekin konparatzen baditugu ere.

Gizartea aldatzen edo garatzen joan den heinean, eskola bera eta lehentasunak ere aldatzen joan izan direla ikus daiteke. 1919. urtetik aurrera hainbat auzo eskola sortu ziren, hezkuntzak garrantzia handia hartu zuelako eta haur guztiak eskolaratzea bilatzen zelako. Hala ere, etxeetako egoera kontuan hartuta, lehenengo lau hamarkadei erreparatuz gero, nabarmena da eskola asistentziari ez zitzaiola berebiziko garrantzirik ematen, ez behintzat gurasoen aldetik. Izan ere, etxean lanen bat egin beharra bazegoen, nekazaritza lanak batik bat, haurrak ez ziren eskolara joaten. Aspektu hori azkeneko hamarkadan, adibidez, ia pentsaezina bihurtzen zen, eskolara bertaratzea horren gainetik jartzen zelarik eta LGE legeak horretara behartzen zuelarik.

Bestalde, hurrek irakasleenganako izaten zuten errespetua azpimarragarria den beste aspektu bat da, ia beldurraren puntura iristerainokoa baitzen, jartzen zizkieten zigorreatatik bakarrik bazen ere. Gaur egun bizi den egoera bestelakoa da, ikasle eta irakasleen arteko harremanean beste hurbiltasun bat ematen delarik, eta beldur hori ez da sentiarazten, umeak eroso sentitzea bultzatzen baita gaitasun guztiak egokiago garatu ahal izateko.

Horrez gain, garaiz garai, gizartean momentu bakoitzeko gertaerek eragin zuzena zuten eskolan ere. Bizi ziren sasoi horretan erlijioari gizartean garrantzia ematen bazitzaion, eskolan ere berebiziko inportantzia hartzen zuen eta horrekin lotutako aspektuak landu eta egin behar izaten zituzten: doktrina eman, errezatu, ... gelan bertan ere, derrigorra zen gurutzeak, Ama Birjinaren argazkia, ... izatea. Ikus daitekeen moduan, ez ziren gizabanakoa eta bere pentsamenduak kontuan hartzen, izan ere, norbaitek ba al zekien guztiak sinestunak ziren edo ez? Ez izanda ere, derrigortuta zeuden egunero otoi egitera eta horrekin lotutako ekintzak egitera.

Bestalde, Frankismo garaian, Frankoren irudiak indarra hartu zuen eta behartuta zeuden geletan bere argazki bat izan eta “Cara el Sol” abestera. Zer esanik ez euskararen inguruan, zeina guztiz debekatuta baitzegoen hitz egitea. Horren adibide nagusi dugu elkarrizketatutako Ander Gorosperi gertatutakoa, “bota eik hona pelotea” esatearren zigor izugarria jasan zuena, eskuak zabal- zabal eginda liburuak eutsi behar izatearena, alegia. Gaur egun, mota horietako zigorrak jasan ezinak izango lirateke, eta are gehiago, guraso zein instituzioen aldetik neurriak hartuko lirateke. Zigorra gogorra iruditzen bazaigu gaur egun, arrazoia gogorragoa da oraindik. Izan ere, gaur egungo eskoletan dagoen egoera kulturala kontuan izanda, ez da onargarria ezta zilegi, ikasteko erabiltzen den hizkuntza ez den beste batean hitz egiteagatik zigortzea. Hurrek etxean ikasitakoa islatzen dute eskolan, eta hori onartu behar den zerbait da, nahiz eta guk hizkuntza eredu bat izan eta hori bultzatu behar dugun eta horri lehentasuna eman behar diogun.

Gaur egungo eskoletan, askoz ere askatasun handiagoa dagoela nabari daiteke zentzu horretan baina horiek beste sasoi batzuk ziren eta derrigorrez bete eta onartu behar zituzten gauzak ziren. Zergatik? Zein zen egunero otoi egin eta “Cara al Sol” abestu behar izatearen arrazoia? Zer ekarpen egiten zion horrek hezkuntza prozesuari? Ideologia inposaketa bat besterik ez.

Bestalde, hezkuntza arloan egondako aldaketek ere eragin zuzena izan zuten gela barruko aldaketetan ere. Horren adibide nagusi dugu, 70. urtean indarrean jarritako LGE delakoa. Horren ondorioz, neskak eta mutilak gela ezberdinetan ikastetik, gela berdinean ikastera pasatu ziren Santa Lucia auzo eskolan ere, eta horrez gain, ikasgai guztiak “Enciclopedia Alvarez”-en bildurik ematetik, arlo bakoitza bere aldetik ematera pasatu ziren.

Ikus daitekeen moduan, momentu bakoitzean eskola barruan egondako aldaketak ez dira besterik gabe gertatu izan, baizik eta, horren atzean hezkuntzan edo gizartean orokorrean aldaketa batzuk eman zirelako. Esan daiteke eskola bera, gizartearen isla zela gaur egun bezala.

Bukatzeko, esan beharra dago, Lehen Hezkuntzako gradu honen lau urteetan zehar, batez ere, gaur egungo hezkuntza prozesuan zentratu izan garela eta gaur egungo egoeraren berri izan dugula. Lan honi esker, aurreko sasoiaren egoera nolakoa zen aztertu eta ikasi ahal izan dut hezkuntzari dagokionean, eta zentzu horretan, ekarpen handia izan da niretzat.

5. Erreferentzia bibliografikoak

Arrien, Gregorio. (1987). *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia, Escuela y autonomía: 1898-1936*. Bilbao: Diputación Foral de Vizcaya.

Batanaz Palomares, L. (1998). Derivaciones organizativas procedentes del contexto sociopolítico (II). L. Batanaz Palomares- en *Organización escolar: bases científicas para el desarrollo de las instituciones educativas* (or. 159-213). Córdoba.

Excma. Diputación de Vizcaya. (1921). *Escuelas de barriada de Vizcaya- Moción Gallano, Estatuto, Reglamento, Plan y Cuadros de Enseñanza*: Imprenta Provincial.

Excma. Diputación de Vizcaya. (1926). *Reglamento de escuelas de barriada*. Bilbao: Imprenta de la Excma. Diputación.

Zufía, Pedro. (1930). *Las Escuelas de Barriada*: Imprenta Provincial de Vizcaya.

Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboko zenbait datu: gutunak, zerrendak, notatxoak,...

- Instrucción Pública escuelas de barriada 25.
- Escuela Públicas y de barriada caja N° 1972 Expediente N°7
- Escuela Públicas y de barriada caja N° 1977 Expediente N°8
- Escuela Públicas y de barriada caja N° 1976 Expediente N°14
- Escuela de barriada caja N° 1983 Expediente N°2

Igorreko Udaletxeko dokumentu gutxi batzuk.

Elkarrizketatuengandik jasotako informazioa: Antonio Atutxa, Ramon Ellakuria, Maria Inunciaga, Ander Gorospe, Aintzane Inunciaga, Iosu Inunciaga, Maria Dolores Amuriza.

